

Aiaraldea

Eskualdeko bertso bilduma

2014-2015 ikasturtea

Proiektuaren sustatzaileak

Amurrioko Udala
Amurrioko ikastetxeak
Urduñako Udala
Aiarako Udala
Laudioko Udala
Artziniegako Udala

AURKIBIDEA

3. orrialdeaLa Milagrosa ikastetxea- Audio - 5.A
 4. orrialdeaLa Milagrosa ikastetxea- Audio - 5.B
 5. orrialdeaLa Milagrosa ikastetxea- Audio - 6.A
 6. orrialdeaLa Milagrosa ikastetxea- Audio - 6.B
 7. orrialdeaFabian Legorburu ikastetxea- Audio - 5.maila
 8. orrialdeaFabian Legorburu ikastetxea- Audio - 6.maila
 9. orrialdeaLamuza ikastetxea- Audio - 5.maila
 10. orrialdea.....Lamuza ikastetxea- Audio - 6.maila
 11. orrialdea.....Lateorro ikastetxea- Audio - 5.B
 12. orrialdea.....Lateorro ikastetxea- Audio - 5.D1
 13. orrialdea.....Lateorro ikastetxea- Audio - 5.D2
 14. orrialdea.....Lateorro ikastetxea- Audio - 6.B
 15. orrialdea.....Lateorro ikastetxea- Audio - 6.D1
 16. orrialdea.....Lateorro ikastetxea- Audio - 6.D2
 17. orrialdea.....Audio Ikastola- Audio - 5.A
 18. orrialdea.....Audio Ikastola- Audio - 5.B
 19. orrialdea.....Audio Ikastola- Audio - 6.A
 20. orrialdea.....Audio Ikastola- Audio - 6.B
 21. orrialdea.....Etxaurren Ikastola – Arespaldiza – Berdeak
 22. orrialdea.....Etxaurren Ikastola – Arespaldiza – Horiak
 23. orrialdea.....Lukas Rey ikastetxea – Amurrio – 5.A
 24. orrialdea.....Lukas Rey ikastetxea – Amurrio – 5.A
 25. orrialdea.....Lukas Rey ikastetxea – Amurrio – 6.B
 26. orrialdea.....Zabaleko ikastetxea – Amurrio – 5. eta 6. maila
 27. orrialdea.....Virgen Niña ikastetxea – Amurrio – 6.maila
 28. orrialdea.....Aresketa Ikastola – Amurrio – 6.A
 29. orrialdea.....Aresketa Ikastola – Amurrio – 6.B
 30. orrialdea.....Aresketa Ikastola – Amurrio – 1. DBH.A
 31. orrialdea.....Aresketa Ikastola – Amurrio – 1. DBH.B
 32. orrialdea.....Zaraobe institutua – Amurrio – 2.D
 33. orrialdea.....Zaraobe institutua – Amurrio – 2.E
 34. orrialdea.....Zaraobe institutua – Amurrio – 2.F
 35. orrialdea.....Zaraobe institutua – Amurrio – 2.G
 36. orrialdea.....Arteko gure ama ikastetxea- Artziniega - 5.maila
 37. orrialdea.....Arteko gure ama ikastetxea- Artziniega - 6.maila
 38. orrialdea.....Urduña Herri Eskola – Urduña- 5. maila
 39. orrialdea.....Urduña Herri Eskola – Urduña- 6. maila
 40. orrialdea.....Antzinako Gure Ama ikastetxea- Urduña - 5.A
 41. orrialdea.....Antzinako Gure Ama ikastetxea- Urduña - 5.B
 42. orrialdea.....Antzinako Gure Ama ikastetxea- Urduña - 6. maila

Bertso-eskolak

43. orrialdea.....Eskualdeko bertso-eskolak



La Milagrosa ikastetxea—Laudio 5.A

Korrika egitea
Nahi dugu gehiago
Lekukoaren bila
Joaten gara gero
Klaseko lagunekin
Korrika egunero
Horrenbeste korrika
Badaukagu bero

Korrika iritsita
Euskaraz mintzatzen
Urepeletik hasi
Ta Bilbon amaitzen
Hamar egun korrika
Ezer deskantsatzen
Egoten gara beti
Korrika egiten

Martxoan hasten gara
Korrika egiten
Euskaraz mintzatzea
Nahi dugu guk aurten
Klaseko lagunekin
Primeran pasatzen
Korrika egiten dugu
Euskara bultzatzen

Korrika ta korrika
Hamar egunetan
Neskak eta mutilak
Korrika kalean
Herrietatik zehar
Bai Euskal Herrian
Azkenengo egunean
Nekea benetan



La Milagrosa ikastetxea—Laudio 5.B

Urepelen hasten da
Bilbon amaitzeko
Bostgarren mailakoak
ondo pasatzeko
hori egin ta gero
jai bat egiteko
lekukoa ireki
mezua entzuteko

urepelen hasten da
aurtengo korrika
guztiok joango gara
petoa jantzita
bilbon bukatuko da
da oso polita
euskara bultzatzeko
daukagu guk zita

korrika iritsi da
denok gaude alai
ibilbide osoa
ez dugu egin nahi
lekukoa eraman

petoa ere bai
entrenatu behar dugu
egiteko lasai

korrika egiten da
hamar egunetan
korrika eta gero
jaia kaleetan
ondo pasatzen dugu
guztiok benetan
petoa janzten dugu
bilbon bukaeran

korrika helduko da
eta gaude alai
korrika eta gero
festatxo bat lasai
korrika bitartean
denok pasatu guay
lagunak beti gaude
egingo dugu jai



La Milagrosa ikastetxea—Laudio 6.A

Kaixo lagunok lepa Joxepa
Gu gaude Los Angelesen
Ta Miley cirus ikusi dugu
Oso xeibre dantzaten
Gero alfonbra gorrira joan
Hasiko gara afaltzen
Justin Bieber ikusi dugu
Selenarekin dantzaten
Bere neskari telefonoa
Lapurtu egin zioten

Kaixo lagunak gu oporretan
Bora Boran gaude aurten
Ur izartxo bat zapaldu eta
Nire oinan gelditu zen
Arrain handiak janari dena
Uretara bota zuen
Hemen uretan jaten dugu bai
Oraintxe bertan bazkaltzen
Hilabete bat geratzen zaigu
Hemen primeran pasatzen

Kaixo familia eta lagunok
Bagaude Los Angelesen
Jende ospetsua ikusi dugu
Argazkiak ateratzen
Mendi batzutan eskalatuta

Abesti asko abesten
Telebistako serie batean
Hiri guztia ikusten
Teleferiko batean gaude
Ta diskotekan dantzaten

Kaixo familia Italian gaude
Hemen pizza askaltzen bai
Pissa dorrea ikusi dugu
Erroman egin dugu jai
Aktore on bat ikusi eta
Selfie egin dugu alai
Ta jatetxean espagetiak
Jan genituen hain lasai
Eta eguna amaitzeko gaur
Amets bat izatea nahi

Jou jou jou jou, kaixo guztioi
Antartidan gaude hemen
Hemen hotz asko egiten du ta
Izotza bagaude jaten
Hartz polar batek ikusi gaitu
Goazen korrika egiten
Txabolatxo bat ikusi dugu
Eskimal bat bazegoen
Gure etxera joan nahi dugu
Beldurra gaude pasatzen



La Milagrosa ikastetxea—Laudio 6.B

Kaixo lagunok Finlandian gaude
Kriston elurra dago hemen
Motorrak eta oreinak daude
Papa Noel bisitatzen
Estadiora joango gara gu
Jokalariak ikusten
Janari txarra jaten genuen
Euskadikoaz oroitzen
Orein batzuen gainean igo
Hotza handia pasatzen

Kaixo koadrila Hawaien gaude
Hondartza asko dago hemen
Hawaien bero handia baina
Arrain asko arrantzatzen
Sumendi asko badaude hemen
Laba beroa ateratzen
Ospetsu asko ikusi dugu
Jendea dantzan zegoen
Orain gabiltza gauzak erosten
Diru guztia gastatzen

Kaixo familia Londresen gaude
Big Ben-era joango gara
Egingo dugu puentina hortik
Ikusiko dugu Sara
Bera da gure lagun onena
Jauregian jatorra da
Erreginak bai koroarekin
Hartu dezake ikara
Zelako txantxa egin diogun
Bota dugu erre kara

Kaixo lagunok Brasilen gaude
Brasil leku politena
Neymar ezkontzen ikusi dugu
Han bertan bazegoena
Inauteriak ere baziren
Hau da jairik handiena
Gauza goxoak jan genituen
Gero ipurdi gizona
Eta bidaian marakak jotzen
Hau zen ikusgarriena



Fabian Legorburu ikastetxea - Laudio 5. maila

Patio luzeagoa
Nahi dugu izatea
Motokroseko pista
Nahi dugu eukitzea

Miamira irteera
Nahi dugu izatea
Lasterketa zaldian
Nahi dugu eukitzea

Ur parke bat nahi dugu
Guretzat den dena
Piszina bat nahi dugu
Gurea hoberena

Patioa luzeago
Klasea laburra
Uda luzeago
Hau ez da gezurra

Jacuzzi bat nahi dugu
Jolasak ere bai
Lagunekin jolasten
Hori bai dela guai

Patioak luzeago
Klaseak motzago
Udan opor luzeak
Dibertigarriago

Nahi dugu akuapark bat
Eta zinema bat
Ordenagailu on bat
Nahi dugu guretzat

Bertsoak nahi ditugu
Unai egotea
Kontzertu oso polita
Ere ikustea



Fabian Legorburu ikastetxea - Laudio 6. maila

Amatxok aterpea ematen dit
Euria dagoenean
Eskutik heldu eta jarraian
Jartzen nau aldamenean
Babesten nau gauza txarretatik
Zerbait behar dudanean
Loreak oparitzen dizkiot
Maite zaitut esatean

Ezkutaketan jolasten dugu
Joaten naiz berarengana
Oso erreza da bera aurkitzea
Da nire ama laztana
Nire amatxok ere badaki
Niri nola kendu lana
Amatxok dena erakusten dit
Asko maite zaitut ama

Jolasten erakusten dit amak
Primeran dugu pasatzen
Amatxo nire ama maitia
Ze dibertigarria den
Amatxok janari hoberena
Nire ahora eramaten
Amatxo asko maite zaitut nik
Hoberena zara hemen

Oso handia da nire ama
Ni berriz txiki txikia
Jausten naiz eta hartzen nau azkar
Ta sendatzen dit zauria
Indartsua ta oso ausarta
Bera da nire argia
Nik ematen diot egunero
Besarkada bat handia



Lamuza ikastetxea - Laudio 5. maila

Oso txikiak dira
Eta asko dira
Oso politak eta
Badute distira
Urdin kolorekoak
Begira bestela
Herri txiki batean
Jira eta bira

Telebistakoa da
Personajea bai
Astero ikusten dugu
Programa hau alai
Abenturazalea
Beti dago lasai
Bere ile marroia
Polita eta guai

Barsan jokutzen du ta
Ez da ez txikia
Luis Suarezren laguna
Hori da egia
Askotan jokutzen du
Partidu handia
Golak sartzen baditu
Badauka saria

Polita eta txikia
Hori kolorea
Oso moko txikia
Badauka etxea
Begi txiki txikiak
Ahoa luzea
Oiloa bere ama
Beti nahi zaintzea

Neska bat agertzen da
Gainera New Yorken
Umeak zaintzen ditu
Etxe handi baten
Diru asko daukate
Beti irabazten
Oso famatu dira
Beti bidaiatzen

Telebistan agertzen
Ta gu barre egiten
Oso tuntuna bera
Dibertigarri hemen
Pentsamendu tuntunak
Burutik ibiltzen
Karabana batean
Badago bizitzen



Lamuza ikastetxea - Audio 6. maila

Kaixo lagunok kaixo familia
Zelan hor Afrikan gaude
Bero handia badago hemen
Hemen gaude hotzik gabe
Ta urik gabe ezin ibili
Hotelean geratu hobe
Tribu dezente ikusi dugu
Baina egin dute alde
Elefanteetan ta gameluan
Gu beti bezala trebe

Kaixo lagunok Bartzelonara
Etorri gara gu aurten
Neymar kalean ikusi dugu
Taberna batera sartzen
Futbol taldea aurkertu digu
Futbol partida jokatzen
Luis Enriqueren taldea doa
Hamar hiru irabazten

Kaixo familia Parisen gaude
Dorrea ikusi dugu
Kaleetatik ibili gara
Kroasanak jan ditugu
Arropa asko badaude hemen
Denak gustatzen zaizkigu
Louvre bertako argazkietan
Ondo irteten gara gu...

... Beno hau izan da dena eta
Leku polita dakigu

Kaixo koadrila Urduñan gaude
Zelai berdeetan jolasten
Mendi gainean dago birjina
Plaza Gernika ikusten
Gu joan ginen balneariora
Foruko plazan jolasten
Zezenak ere asko badaude
Merkadilloak ikusten
Otxomaioko festa hasi zen
Ta buruhandiak zeuden

Segovian gaude ondo pasatzen
Akueduktoa ikusten
Ta bero asko egiten zuen
Igerilekura joaten
Lagun dezente egin genuen
Ondo pasatu genuen
Herriko festak pozik pasatzen
Denok batera dantzatzen
Klaseko bat bai plazan zebilen
Zirkuan ondo pasatzen



Lateorro ikastetxea—Laudio 5.B

Gu Laudiokoak gara
Lateorron ikasten
Ez gara oso onak
Beti hitz egiten
Patioan gurekin
Ez zara aspertzen
Klaseak amaituta
Guztiok dantzatzen

Lateorro eskolan gaude
Bostgarren B mailan
Dibertigarri gara
Jolastoki bertan
Batzutan berritsuak
Baita ere lanean
Gustoko eskulanak
Egitea gelan

Lateorrokoak gara
Bostgarren B-koak
Eta guztiak gara
Nahiko martxosoak
Onenak gara eta
Ez gara tontoak
Gu Laudiokoak gara
Euskal Herrikoak

Ondo pasatzen dugu
Patioan jolasten
Barre egiten dugu
Primeran pasatzen
Eskolan lan egiten
Ere bai ikasten
Ordua iritsita
Korrika egiten



Lateorro ikastetxea—Laudio 5.D 1

Lateorro eskolan gaude
5 D 1 klasean
Beti barrezka gaude
Tontakerietan

Asko ikasten dugu
Denak gairiditzeko
Patiara joaten gara
Ondo pasatzeko

Lateorrokoak bai
Gu gara onenak
Bosgarren mailan gaude
Gara zintzoenak

Lagunekin jolasten
Ez gara aspertzen
Eskolan beti gaude
Primeran pasatzen

Lagun asko ditugu
Beti beraiekin
Ere jolasten dugu
beste klaseekin

eskolan lo geratu
inguru orduetan
errimekin jolasten
bertso klaseetan

mate gustuko dugu
jolastordua ere
patioan jolasteko
gara oso trebe

Gu Laudiokoak gara
Herriko onenak
Hamar urte ditugu
Gara azkarrenak



Lateorro ikastetxea—Laudio 5.D 2

Lateorrokoak gara
5 D2 klasean
Futbolean jolasten
Goiz eta gauean

Euskera ikasten dugu
Oso ondo pasatzen
Lagunekin batera
Guztiok maitatzen

Maisuek bronka bota
Eta gu isiltzen
Matematikan gaude
Gehitzen eta kentzen

Denok lagunak gara
Denok jolasteko
Oso azkarrak gara
Denak gairatzeko

Patio handia dugu
Klasea txikia
Gure altxorra bada
Bai jolastokia

5. D 2koak
lateorro eskolan
Eskola hoberena
Laudioko herrian

Bosgarren mailakoak
Pixkat bihurriak
Oso jatorrak gara
Bai Lateorrokoak

Bertsolari onenak
Koplak ondo egiten
Bertsoak egiteko
Errimak bilatzen



Lateorro ikastetxea—Laudio 6.B

24 ikasle
Gara gure gelan
Ondo pasatzen dugu
Jolastokietan
Gure maisuek berriz
Jartzen digute lan
Istorio aspergarriak
Ditugu klasean

Seigarren mailakoak
Hoberenak gara
Pixkat gaiztoak gara
Zelako ikara
Patioan jolasten
Zelako pasada
Eskola amaituta
Guztiok plazara

Hogeita lau klasean
Guztiok gaiztoak
Lateorro eskolan
Gehiegi azterketak
Futbolean eta dantzan
Gu gara trebeak
Laudion dudarik Gabe
Gu gara onenak

Gure klase ederra
Oso langilea
Irakaslearekin
Ez dugu bakea
Inguru ez dugu maite
Inoiz egitea
Ordenagailuekin
Ondo pasatzea

Kirol zaleak gara
Lateorro eskolan
Jolas gustuko dugu
Hemen ta patioan
Dantzatzen ari gara
Tomasekin gelan
Txirrina jo ta gero
denok korrika joan



Lateorro ikastetxea—Laudio 6.D 1

Hamasei pertson gara
 Bai gure klasean
 Mutilak futbolean
 Eta neskak dantzan
 Beti jolasten dugu
 Bai gure patioan
 Gure etxeko lanak
 Beti egitean

Hoberenak gu gara
 Gure ikastetxean
 Neskak jolasten dugu
 Mutilak borrokan
 Oso lagunak gara
 Guztiok parkean
 Institutura goaz
 Datorren urtean

Oporretatik bueltan
 Berriro klasera
 Patioan jolasten
 Beti futbolera
 Klaseko hamaseiak
 Bostetan etxera
 Ariketak egiten
 Ta gero ohera

Etxeko lanak asko
 Ditugu klasean
 Patiora joaten gara
 Hamaika terditan
 Etxera joaten gara
 Txirrina jotzean
 Ikasi eta gero
 Berriro ohean




Lateorro ikastetxea—Laudio 6.D 2

Institutura goaz
Lagun berriekin
Lateorro utzita
Hainbat lagunekin
Irakasle berriak
Ezer ez da berdin
Baina gu joango gara
Gogo handiekin

Lateorro utzita
Institutura bai
Guztiok joango gara
Pozik eta alai
Jolastoki berrian
Egingo dugu jai
Gehiago ikastea
Hori ez dugu nahi

Bagoaz Lateorrotik
Gure institutura
Faltan botako dugu
Bagoaz kanpora
Lateorron pasata
Hainbeste denbora
Oporrak hasi dira
Gu gaude gustora

Lateorrotik bagoaz
Institutura bai
Gehiago ikastera
Eta oso alai
Lagun berriak egin
Denak oso lasai
Guztiok ikastera
Egingo dugu jai



Laudio Ikastola—Laudio 5.A

Ikastolako jaia
Hoberena da bai
Dantzak eta jolasak
Guztia oso guai

Bazkariko guztia
Oso goxo dago
Jende mordoia dago
Hau ez da arraro

Eskolako eguna
Heldu zaigu jada
Ondo pasatu eta
Mintzatu euskara

Ikastolan ospatzen
Da gaur gure jaia
Denentzako kirolak
Hau giro alai

Puzgarriak Beteta
Guztiok saltoka
Euskaraz hitz egiten
Ez egin borroka

Patinak ta futbola
Denak disfrutatu
Guztiok dibertitzen
Euskaraz mintzatu



Laudio Ikastola—Laudio 5.B

Maiatzak 23
Ikastolan jai jai
Bertso batzuk abesten
Ta dantzan ere bai

Ikastolako jaia
Bagaude ospatzen
Nagusi eta haurrak
Guztiak gozatzen

Ikastolako jaiari
Denok gaude alai
Tatuak eta metxak
Bustina ere bai

Euskara gure artean
Dago betidanik
Erabiltzen badugu
Guztiok poz pozik

Uda badator laster
Hondartzara denak
Etxeko-lanak kendu
Gara alferrenak

Ikastolako festa
Gu ospatzen gaude
Dantzak eta jolasak
Hemen ere daude



Laudio Ikastola—Laudio 6.A

Oso trastoak gara
Beti hitz egiten
Irakasleen burua
Kea ateratzen
Jolastorduan gaude
Guztiok jolasten
Etxeko lan gehiegi
Digute bidaltzen

Seigarren mailakoak
Gu gara onenak
Ematen dizkigute
Txapa handienak
Klasean beti kexak
Gara alferrenak
Makarroiak guretzat
Dira goxoenak

Gure klase handia
Bihurriak gara
Oso pozik gaude gu
Joaten bertara
Hainbeste teoria
Zelako ikara
Baina denok maitatzen
Betiko Euskara

Txintxoak ez bagara
Etxera oharra
Bakoitzak bere estutxe
Ekarri beharra
Etxeko-lanak egin
Zelako txatarra
Azterketetarako
Ez dugu indarra

Gu potxoloak gara
Ta nahiko trastoak
Seigarren mailan gara
Oso fiesteroak
Ematen duen arren
Ez gaude eroak
Asko aspertzen gara
Egiten problemak

Laudio ikastolako
Ikasleak gara
Seigarren mailaraino
Heldu gara jada
Irakasleengatik
Ez dugu ikara
Ondo pasatzen dugu
Etortzen gelara



Laudio Ikastola—Laudio 6.B

Laudio ikastolako
Umeak gara bai
Andereño jatorrak
Ta gu oso lasai
Patioan jolasten
Beti oso alai
Hainbeste azterketa
Ez dugu egin nahi

Gu ikastolan gaude
Oso aspertuta
Batuetan gaintitzen
Edo penkatuta
Asko jolasten dugu
Ta beti oihuka
Materiala botata
Dena apurtuta

Gu gara ikasleak
Ikastolakoak
Ez zaizkigu gustatzen
Bat ere klaseak
Arantxa eta Ander
Gure irakasleak
Gure etxeko lanak
Ez dira politikak

Ikastolakoak gara
Nolako pasada
Lan asko egiteko
Bagoaz gelara
Jolastokiarekin
Ondo pasatzera
Jantokia ta gero
Berriz jolastera

Seigarren mailan gaude
Laudio ikastolan
Asko kexatu baina
Egiten dugu lan
Klasera sartzen gara
Bederatzietan
Eta bukatzen dugu
Bai lau t erdietan

Irakasleak sartzen
Dira gela honetan
Eta matraka ematen
Denbora osoan
Gu oso onak gara
Klase ta kalean
Baina gero notetan
Denok gezurretan



Etxaurren ikastola - Arespaldiza Berdeak

Zuhatzako jendea
Eskolara doa
Euskaraz egiteko
Badute ahoa
Herriaren erdian
Badute astoa
Oso polita da bai
Aiara osoa

Luxon guztiok beti
Euskaraz hitz egin
aitatxo eta amatxo
Eta lagunekin
Hemen jende guztiak
Euskaraz bai jakin
Eta etorri gara
Gure bertsoekin

Aiarako herri bat
Deitzen da Salmanton
Oso ondo pasatzen
Hobeto ezin egon
Salmanton onena da
Besteak hor konpon
Herri politagorik
Ez daukagu inon

Izoria da munduko
Herri politena
Parke oso polita
Eta garbiena
Izoriako jendeak
Ez dauka problema
Euskaraz egiteko
Da herri onena

Oso herri polita
Dugu Menagarai
Bere jendearekin
Pasatzen dugu guai
Mendietan korrika
Pozik eta alai
Aiarako herrian
Euskaraz ere bai




Etxaurren ikastola - Arespaldiza Horiak

Erbin beti euskaraz
Gaude hitz egiten
Ikurrina hartuta
Euskaraz mintzatzen
Herri polit honetan
Jendea jolasten
Hemen jende guztia
Primeran pasatzen

Olabezar berdea
Eta euskalduna
Oso herri polita
Guk badaukaguna
Gure herri txikia
Da oso txukuna
Euskal Herrian dago
Gure etorkizuna

Kexaa polita da ta
Ere bai txikia
Euskaraz hitz egiten
Badago herria
Erreka bat badauka
Ere bai mendia
Ondo pasatzen dugu
Hori da egia

Etxegoien osoan
Euskaraz beti bai
Mendi artean dago
Herria oso guay
Euskal Herrian dago
Eta beti alai
Mendiak eta ibaiak
Beti oso alai



**Lucas Rey ikastetxea - Amurrio
5.A**

Nahi dugu azterketak
Betiko kentzea
Jaisteko tobogan bat
Nahi dugu jartzea

Gozokiak ekartzea
Klasean jateko
Barnetegira joan
Ondo pasatzeko

Jacuzzi bat klasean
Pisizina batekin
Egunero etortzeko
Irribar batekin

Patioan pisizina bat
Jacuzzia ere bai
Azterketak kenduta
Pozik eta alai

Izotzezko pista bat
Patioan jartzea
Buffet libre bat ere
Hemen izatea

Disneyland Parisera
Joan nahi dugu guk bai
Port aventuran ere
Egongo gara guai



**Lucas Rey ikastetxea - Amurrio
5.B**

Nahi ditugu aulkiak
Masajearekin
Txirrista bat nahi dugu
Salto handiekin

Irteera nahi dugu
Port aventurara
Ondo pasatzeko bai
Bagoaz bertara


Zinema bat nahi dugu
Klase guztietan
buffet libre izatea
gure jantokian

Gure etxeko lanak
betiko kentzea
eta gure klasean
dantza egitea

Jantokian nahi dugu
buffeta libre
eta etxeko-lanak
betiko kentzea

Txirrista bat nahi dugu
patiora jaisteko
Warner parkera joan
Ondo pasatzeko

Nahi dugu etxeko-lanak
Betiko kentzea
Eta gure klasean
Festa egitea



Lucas Rey ikastetxea - Amurrio
6. maila

Tere andereñoak
Ditu erabiltzen
Gauzak irakasteko
Baditugu hemen
Kolare asko daude
Baditugu ikusten
Margotu eta gero
Ditugu garbitzen

Pirata ospetsua
Bere trentzarekin
Arropa zaharra du
Jotzen ezpatekin
Itsasontzi batean
Diru askorekin
Maltzurak hiltzen ditu
Eskopetarekin

Futbolari famatu
Izan da bai aurtan
Ajaxen jokatzen du
Han bertan hain zuzen
Liga irabazita
Jacuzzian sartzen
Oso ondo pasatzen
Taldea laguntzen

Mendian bizi da ta
Iletsua da bai
Ardiak jaten ditu
Pozik eta alai
Kobazulo batean
Bera bizi da guay
Ilargira begira
Egiten dute jai

Pilotaria ba da
Ez da oso txarra
Asegarcen badago
Badauka indarra
Gure pertsonajea
Dugu berriztarra
Kirol hori egiten
Da oso zaharra

Bere aita desastre
Eta potoloa
Bere gorputz horiaz
Kaletik badoa
Ta bere lagun mina
Hamar urtekoa
Oso bihurria da
Ta astakiloa



Zabaleko ikastetxea - Amurrio 5. eta 6. mailak

Oso txikiak dira
 Politak ere bai
 Marsupialak direla
 Badakigu lasai
 Saltoka egiten dute
 Australiatik alai
 Eta jolasten dute
 Hori bai dela guai

Jokalari ona da
 Athletikekoa
 Korrika egiten du
 Oso azkar doa
 Bere ile polita
 Ferrari mordoa
 Neska polita dauka
 Da Madrilekoa

La que se avecina-n
 Lan egiten du bai
 Neskatoa da bera
 Rubia bat oso guai
 Oso polita da ta
 Beti dago alai
 Erosketak egiten
 Ibiltzen da lasai

Mate irabazlea
 NBA-n dago
 Timberwolves taldean
 Riki azkarrago
 Eskoltaz jokutzen du
 Hau ez da arraro
 Kanastak sartzan ditu
 Gero ta gehiago



**Virgen Niña ikastetxea - Amurrio
LH 6. maila**

Jantokian jateko
Buffet bat nahi dugu
Gero klasean siestak
Botako ditugu

Klaseko aulki denak
Kendu nahi ditugu
Eta sofa handi bat
Ipiniko dugu

Nahi dugu etxeko-lanak
Betiko kentzea
Hola denbora asko
Libre izatea

Ez dugu ikasi nahi
Etxeko-lanik ez
Jacuzzi bat nahi dugu
Egoteko barrez

Guk nahi dugu klasean
Robot bat jartzea
Eta etxeko-lanak
Berak egitea

Telebista nahi dugu
Klase guztietan
Ta igerilekua
Klase aldaketan

Hegazkina izatea
Erabaki dugu
Irakasleak urrun
Bidali ditugu

Eduki nahi ditugu
Klase gutxiago
Aspertzen garelako
Hori argi dago



Aresketa ikastola - Amurrio 6. A

Aresketa ikastolan
Bertsoak abesten
Euskararen eguna
Primeran pasatzen

Abenduaren 3a
Euskara eguna
Euskara erabili
Ez izan tuntuna

Aresketa ikastolan
Gaude irratian
Bertso hauek abesten
Koldoren ondoan

Ama begira zazu
Leihotik plazara
Euskararen eguna
Iritsi da jada

Irratsaioan gaude
Bertsoak abesten
Oso bertso politikak
Ahotik botatzen

Abenduaren hiruan
Bertsoak kantatzen
Gu beti errimatzen
Primeran pasatzen

Euskaraz hitz egiten
Gure lagunekin
Irratian bagaude
Gure bertsoekin



Aresketa ikastola - Amurrio
6. B

Lapurretetara joan
Lagunekin pozik
Oso ondo pasatzen
Ez dago dudarik

Lapurretetan ondo
Nik pasatu nuen
Untxien kaka ere
Garbitu genuen

Athletikek galduta
Denok penatuta
Baina oraindik ez da
Guztia galduta

Lapurretetan ondo
Pasatu genuen
Animalitxoekin
Sartu egin ginen

Mutilak haserretu
Neskak izorratu
Hurrengo egunean
Etxera bueltatu

Lapurretetan geunen
Baserri eskolan
Athletikek galduta
Oporto zelaian

Neskak ondo pasatzen
Diskotekan dantzan
Gaua pasa genuen
Pozik diskotekan



Aresketa ikastola - Amurrio 1. DBH- A

Kaixo lagunak Mexikon gaude
Tekila asko edan dugu
Dagoeneko bibotea dugu
Dantzak egiten ditugu
Kapela batzuk erosi eta
Mariatxiekin gaude gu
Pixkat arraro badiren arren
Jende jatorra seguru
Bizi osoa hemen gelditu
Hori da gure helburu

Kaixo lagunak Hawaien gaude
Pearl Harborreko uhartean
USA-ko flota ikusten
Eta gero museoan
Izurde bat ikusten nengoen
Surf egiten nengoenean
Koko bat jaten nago oraintxe
Hondartza baten ertzean
Ta bueltarako itsasontzitik
Marrazoei jaten eman

Kaixo lagunak Parisen gaude
Eiffel dorrea ikusten
Bainujantziak erosten gaude
Baina ez zaizkigu gustatzen
Kanping batean lo egiten gaude
Kruasan asko gosaltzen
Ta goizean goiz itsasaldera
Itsasontzian igotzen
Agur lagunak ikusi arte
Hemen bagaude gozatzen

Las Vegasera etorri gara
Gure oporrak pasatzen
Tragaperretan diru guztia
Atzo gastatu genuen
Orain dirurik ez daukagunez
Gaude dirua eskatzen
Gure oporrak fastidiatuta
Zubi azpian abesten
Gure etxera nola bueltatu
Hasi gara gu pentsatzen



Aresketa ikastola - Amurrio
1. DBH—B

Kaixo lagunok Egipton gaude
 Bero handia jasaten
 Hemen guztia basamortua
 Herri txiki batzuk kentzen
 Egun osoa pasatzen dugu
 Piramideak ikusten
 Tutankamonen basamortua
 Ikusteko gaude ordaintzen
 Beno honekin amaitzen dugu
 Nilo ibaiaz gozaten

Hego polotik agur bero bat
 Pinguinoekin jolasten
 Izotz artean guztiok gaude
 Hartz polar asko ikusten
 Inuit batek gonbidatuta
 Igluetan gaude idazten
 Orka gaiztoak gure atzetik
 Badatoz azkar dantzaten
 Ur hotzetara erori gara
 Hipotermia gaude hartzen

Kaixo koadrila gu Marten gaude
 Estralurtar batzuekin
 Haien hizkuntza ikasten gaude
 Entziklopediarekin
 kartetan gaude hemen jolasten
 martziano erregearekin
 hemendik lurra ikusten dugu
 teleskopio handiekin
 beste hiru egun gelditzen dira
 ondo pasa lagunekin

kaixo d.b.h Brasilen gaude
 neska asko daude hemen
 orain hondartzara joango gara
 eguzkia ondo hartzen
 Rio Janeiro ikusi dugu
 eta oso handia zen
 inauteriak orain badira
 eta gaude mozarrotzen
 beno Amurrio joan behar gara
 bertso polit hau bukatzen



Zaraobe institutua - Amurrio 2. D

Zaraobeko gazteak gara
 Bigarren D-ko klasea
 Hementxe gaude oso aspertuta
 Hobe kontrolak kentzea
 Iaz bezala aurten ere bai
 Tokatzen da ikastea
 Klase guztiak aspergarriak
 Nahi dugu deskantsatzea

Behetik hasita lau maila gara
 Ta gero batxilergoa
 Gurasoentzat ere badaude
 Asignatura mordoa
 Bigarren mailan D letra gara
 Hau da zoologikoa
 Pasilloetan beti oihuka
 Hau da kriston ekipoa

2. D-ko ikasleak gara
 12 urtekoak
 Ikasgai batzuk astunak dira
 Klaseak amaigabeak
 Beti naturan asko ikasteko
 Gu begira aspertuak
 Ia guztiak txintxoak dira
 Baina besteak okerrak

Gu gaur berriro goaz klasera
 Logure asko izaten
 Nahiago dugu kalera joan
 Baina gaude konformatzen
 Berriz natura egingo dugu
 Gauza gehiegi entzuten
 Oso aspertuta gaude guztiok
 Eta denok lo egiten



Zaraobe institutua - Amurrio 2. E

Gelatxo honek hiru leiho du
Ta handik begira gaude
Gure klaseko ikaskideekin
Oso txoratuta gaude
Beti oihuka ibiltzen gara
Inongo zentzurik Gabe
Erokeriak hoberenak ta
Arriskutsuenak ere

Gu Zaraoben ikasten gaude
Hobeto bai bizitzeko
Gela handiak behar ditugu
Pixkat gehio ikasteko
Patio handia nahi dugu hemen
Oso pozik jolasteko
Ordenagailu berriak jarri
Lanak ondo egiteko

Aurten bagaude klase honetan
Mutil hauek aguantatzen
Lan asko egin asko ikasi
Eta apurka hobetzen
Klase luzeak ditugu hemen
Baina primeran pasatzen
Amodio asko sortzen baitira
Eta borrokak baztertzen

Kaixo lagunak Zaraoben gaude
Ikasi ordeaz gozatzen
Klaseak luze patioak motzak
Egiten ditugun arren
Batzuk ez dute etxeko-lana
Sekula ere egiten
Txirrina jota denok bagoaz
Azkar autobusa hartzen

Kaixo koadrila klasean gaude
Lasai eta lagunekin
Aspertzen gara klasean denok
Dauden irakasgaiekin
Etxeko-lanak bidali eta
Gero azterketarekin
Txirrina jota etxera goaz
Irribar handi batekin



Zaraobe institutua - Amurrio 2. F

Bigarren F-koak
Gara hoberenak
Azterketak kopiatzen
Gara adituak
Klasean beti gaude
Jaten gozokiak
Beti barre egiten
Bagaude mutilak

Bigarren d.b.h-n
F-ko klasean
Beti egoten gara
Liskarren artean
Neskak hizketan eta
Mutilak atzean
Irakasleak sartu
Zarata entzutean

Bigarren F gara
Ikasle onenak
Azterketak egiten
Oso aspertuak
Gero jolas lekuan
Oso aktiboak
Txirrina jo ta gero
Bai deprimituak

Bigarren F-koak
Gu gara onenak
21 klasean
Neska ta mutilak
Beti ikasten gaude
Aspertuak denak
Ta txirrina jotzean
Momentu alaiak

Biok bagaude hemen
Bertso hau kantatzen
Zaraobeko gelan
Bagaude aurkezten
Ikastetxe honetan
Bagaude ikasten
Ikaslerik onenak
Baditugu hemen

Bigarren F gara
Beti egiten jai
Klasean jende asko
Beti oso alai
Azterketa ugari
Gu ez gaude lasai
Denbora asko hemen
Kanpoan oso guai




Zaraobe institutua - Amurrio
2. G

2. G klaseko
Ikasleak gara
Zaraobe institutuan
Ikasten Euskara
Egun guztietan goaz
Bai triste bertara
Etxeko lanak eta
Klaseei ikara

Ondo pasatzen dugu
Patio guztietan
Baina gu oso txarto
Teoria klasetan
Irakaslearekin
Gu beti txantxetan
Lau mutil oso jator
Gaude talde honetan

Zelako klasea dugun
Denak gaude oihuka
Ikasle gaixo hauek
Beti dute kulpa
Klasera etortzen gara
Motxilak hartuta
Klaseko goapoekin
Neskak harrituta



**Arteko gure ama ikastetxea - Artziniega
LH 5. maila**

Oporrak oso onak
Uda etortzean
Lagunekin jolasten
Hondartza batean

Kalean jolasean
Futbolekin jolasten
Eta ez dugu inoiz
Borroka egiten

Uda iritsiko da
Eskola joango da
Hondartzara bagoaz
Ondo pasatzera

Oporrak hemen daude
Irakasle Gabe
Piszinetan egunak
Hondartzak badaude

Uda iritsiko da
Oporrak ere bai
Hondartzara bagoaz
Egoteko lasai

Beroa egiten du
Infernuan bezela
Piszinara joateko
Hau gogo itzela

Igeri egitera
Hondartzara goaz
Piszinetara ere bai
Joango gara erraz

Futbolera jolasten
Dugu guk frontoian
Izozki bat jatera
Bai jakitokian



**Arteko gure ama ikastetxea - Artziniega
LH 6. maila**

Arteko gure ama
Artziniegakoa
Ikastola polita
Gure gustukoa
Frontoi bat badaukagu
Pilota mordoa
Eta sukaldeetan
Janari goxoa

Arteko gure ama
Gure eskola da
Futboleak jolasten
Hoberenak gara
Ta gu beti ikasten
Zelako pasada
Gu hamalau klasean
Zelako ikara

Artziniegako haurrak
Dibertigarriak
Arteko gure aman
Ikasten dugunak
Gure irakasleak
Dira oso onak
Oso trebeak gara
Egiten bertsoak

Arabatarrak gara
Artziniegakoak
Oso guapoak gara
Gu gara onenak
Arteko gure ama
Ta ezetz penkoak
Asko pentsatzen dugu
Egiten mateak



Urduña Herri Eskola - Urduña 5. maila

Euskararen eguna
Abenduak hiru
Euskaraz mintzatzeko
Gogoak ditugu

Gure bertso politak
bagaude kantatzen
gure jai eta festa
bagaude ospatzen

Urduñako eskolan
euskaraz hitz egin
denok ondo pasatu
gure lagunekin


Urduñako eskolan
euskaraz mintzatzeko
ondo pasatzen dugu
euskaraz egiten

Euskal herri osoan
bagaude ospatzen
eta gure bertsoak
bagaude abesten

Taltoa jaten dugu
gure lagunekin
gimnasioan denok
gure bertsoekin

Euskal herrian ere
bertso eta jolas
eta egingo dugu
guztio euskaraz

Gu euskaldunak gara
bertsoak egiten
eta urdintxurekin
euskaraz jolasten



**Urduña Herri Eskola - Urduña
6. maila**

Kobazuloko neskak
 Mari du izena
 Herensuge bat dauka
 Guretzat onena
 Bere senarra da bai
 Mutil politena
 Naturaren jainkosa
 Neska ederrena

Euskal mitologian
 Mari etorri da
 Bisita egin eta
 Badoa mendira
 Bere herensugeak
 Badauka distira
 Bere kobazulotik
 Badoa herrira

Euskararen eguna
 Mari erregina
 Anbotoko Mari da
 Oso atsegina
 Anbototik badator
 Hori da jakina
 Guk asko maite dugu
 Bai gure sorgina

Bagoaz Anbotora
 Mari bilatzera
 Gure laguna da ta
 Goaz bere etxera
 Beti barrezka goaz
 Bera ikustera
 Mari gure jainkosa
 Doa dantzatzera



Antzinako Gure Ama - Urduña 5.A

Euskararen eguna
Hementxe gaude gu
Gure bertso politak
Botako ditugu

Plazara joango
Euskara abestera
Ondo abesten dugu
Goazen jolastera

Abenduaren hiru
Euskara eguna
Herriko foru plazan
Ospatzen duguna

Polita da Euskara
Gustatzen zait niri
Klasean ta kalean
Beti erabili

Euskalduna bazara
Etorri gurekin
Dibertituko gara
Gure bertsoekin

Gustukoa euskara
Bertsoak ere bai
Unai irakaslea
Beti oso alai



Antzinako Gure Ama - Urduña 5.B

Nahi dugu azterketak
Betiko kentzea
Ta nahi dugu kirola
Beti egitea

Nahi dugu ostiraletan
Festa izatea
Ta igerilekua
Klasean jartzea

Azterketak ez euki
Saskibaloia bai
Etxeko-lanak kendu
Hori bai dela guai

Hidromasaje euki
Gure aulkietan
Guk nahi duguna egin
Beti klaseetan

Urduñako umeak
Euskaldunak dira
Bertso hauek kantatzen
Bagoaz mendira

Nahi dugu telebista
Klasean jartzea
Nahi dugu "mayordomo"
Bat edukitzea

Eta gure patioan
Paintball egotea
Eta gure lagunak
Asko laguntzea

Eta gure klasean
Dj egotea
Eta gure estutxeak
Iphone izatea



Antzinako Gure Ama - Urduña 6. maila

Euskal Herrian gaude
 guztiok korrika
 eskuan lekukoa
 petoa jantzita
 hamar egun korrika
 guztiok lasterka
 urduñan ere laster
 badugu bisita

Korrika joango gara
 hamar egunetan
 gu bagoaz Bilbora
 lekukoa eskutan
 Urepelen hasita
 polita benetan
 korrika joango gara
 gure kaleetan

Korrika hasiko da
 gogo handiekin
 hamar egun korrika
 lekuko batekin
 ondo pasako dugu
 gure lagunekin
 Bilbon amaituko da
 jende askorekin

Korrika hasiera
 aurten Urepelen
 hamar egun korrika
 hau ez da gelditzen
 denok parte hartuta
 lekukoa eusten
 petoa egin eta
 euskara bultzatzen

Martxoak 19
 hasi Urepelen
 alaiak gara eta
 korrika egiten
 ez dugu lo egingo
 gaur izan arren
 Bilbon amaituko da
 festa bat ospatzen

Eskualdeko bertso-eskolak
2014-2015 ikasturtea



AIARA ESKUALDEKO BERTSO-ESKOLA "AIEBE"

Amurrioko bertso eskola
Amurrioko Kultur Etxea
Juan De Urrutia Enparantza z/g
01470 AMURRIO

Laudioko bertso eskola
Laudioko Kultur Etxea
Lamuza parkea, 13
01400 LAUDIO

Unai Menbidil - Asier Rubio
Telefonoa: 945 010505 (Arabako Bertsozale Elkarteak)
e-posta: trunkatun@hotmail.com

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA
AMAIA ZENTROA
Pérez Galdós z/g 01002 GASTEIZ
Tel: 945010505 fax: 945288275
e-posta: araba@bertsozale.eus
www.bertsozale.eus/araba
www.bertsozale.eus

